



◦ DEABRUAREN ABOKATUA ◦

## “Ez dago kimikarik, hilda dago argazkilaritza”

Conny Beyreuther | Paparatzia

Kliska eta kliska artean, utzi digu galderen bitartez  
bera erretratatzeko.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Dani Blanco

**Barkatu, baina gero eta meritu gutxiago duzue argazkilariek: a zer kamera puska ekarri duzun...**

Jostailu polita, e? Bada, oraindik irakurtzeke daukat instrukzio liburua. Argazkia egiteko botoia aurkitzen badut, ondo goaz.

**Edonor izan daiteke orain argazkilari, kamera digitalen akabatuko dute argazkilaritza.**

Esaten dute jada hilda dagoela. Ez dago kimikarik, akabo istorioa. 1989an eraitsi zuten Berlingo harresia eta hil egin zen argazkilaritza, nahiz eta ikusteko dagoen bien arteko konexioa. Gora aro postfotografikoa!

**Eta hori gutxi balitz, Photoshopa. Itsusiak ere guapo ateratzen dituzue!**

Baina edertasuna ez al zegoen geure baitan? Zer egingo duzu, bestela, zure irudi idealizatuaren antza izateko? Kirurgia plastikoa? Edo etxean itxita geratu, Marlene Dietrichen egin zuen bezala?

**Bidaiatu ere, bueltan argazkiak erakusteko bidaiatzen dugu eta!**

Leku komunitatik atera eta azal azpian murgiltzen bazara, konpainia ona egingo dizu argazki kamera batek.

**Erretratuak egiten dituzu zuk, batez ere. Zure esku dago erretratatuaren karrera profesionala...**

Bai, atsegin dut erretratuak egitea, baina ez dut uste ezer dudarik nire eskuetan, ez bada argi arastoren bat.

**Humberto Rivas argazkilarik esana: “Erretratu beti da autoerretratu”.**

Orain ulertzen dut zergatik agertzen den jendea hain guapo nire argazkietan! Txantxa alde batera utzita, nire ikuspuntutik baino ezin ditut egin argazkiak. Argazki objektiboagoa nahi baduzu *fotomatoi* kabina bat gomendatzen dizut.

**Argazkiak dagoeneko ez ditu arimak lapurtzen, baina erretratatu izan denaren arimarik ere ez du jasotzen.**

Mundu guztiak ere ez du arima. Zer esango dizut zuri... Noren abokatua zara? Baina uste dut komunikaziorik gabe ez dagoela erretraturik.

**Terry Richardson izan ezik, argazkilari gutxi agertzen zarete argazkietan. Argazkiaren krudeltasuna inork baino hobeto ezagutzen duzue...**

Ez zaitez hain ezkorra izan, gizona! Nahiago dut pentsatu argazkia magia dela, laztan bat, errebelatu argi-iluna.

**Aizu, mila hitzek baino gehiago balio omen du irudi batek, baina hemen ari gara gu, hitz eta pitz...**

Zenbat daramatzagu? 500? Irudi erdia falta dugu orduan. ■